



**LANGABEZIAREN  
AURIKAKO PLANA**

**PLAN DE LUCHA  
CONTRA EL PARO**



## LANGABEZIARI AURRE EGITEKO PLANA 2012

### GIZARTE ELKARRIZKETARAKO MAHAIAREN AKORDIOA

IX. legegintzaldia hasi zenetik, **Eusko Jaurlaritzak Gizarte Elkarrizketarako Mahaia osatzeko apustu sendoa egin du, erantzunkidetasunean oinarritutako eredu soziolaborala berrestearren**; horri esker, erabakien kalitatea areagotzeaz gain, gizarte osoaren onarpena biderkatu egiten da, gizarte-solaskideen bermea duelako.

Legegintzaldiaren hasieratik, enpresaburuen elkarte eta sindikatuen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko elkarrizketako eta eztabaidako prozesuari ekin diogu Gizarte Elkarrizketarako Mahaian; horren ondorioz, **Euskal Autonomia Erkidegoan enpleguaren egoeraren diagnostikoa egitean oinarritzko adostasunetara iritsi gara, baita egoerari aurre egiteko abiarazi behar diren berehalako ekintzako neurriei eta neurri sakonagoei dagokienez ere.**

Hiru hilabete lehenago Nazioarteko Moneta Funtsak egindako aurreikuspenak zuzendu egin dituzte berriki, beherantz zuzendu ere; **zuzenketa horrek ekonomia, oro har, geldialdian sartzen ari dela eta krisia gogortzen ari dela ohartarazten digu.** NMFren ustez, munduko ekonomia % 3,3 haziko da 2012an, hau da, iraileko txostenean aurreikusitakoa baino zazpi hamarren gutxiago; aldiz, 2013rako % 3,9ko hazkundera aurreikusi du, aurreko aurreikuspenean baino sei hamarren gutxiago. Testuinguru horretan, 2012. urtean Europa atzeraldian sartuko dela aurreikusten da eta horrek inpaktu negatiboa izango du lan-merkatuan, bereziki, Espainian eta Italian, datozen bi urteotarako hazkundera itxaropenak nabarmen murriztu dituztelako.

Aurreikuspen horiek bat datoz Espainiako Bankuak 2012ko urtarrilean Buletin Ekonomikoan argitaratu duenarekin; izan ere, **Espainiako ekonomiaren BPGaren jaitziera nabarmena (% -1,5) aurreikusten du 2012rako eta 2013rako hazkunde ia nulua (% 0,2).**

2012rako gizartearen eta lanaren egoera latz horrek eragin negatiboa izango du Euskal Autonomia Erkidegoan, Europako eta Espainiako ekonomiarekin elkarmendekotasun-egoeran dagoelako eta Alemanian eta Frantzia ere hazkundera moteldu egingo delako — eta EAEko esportazioen xede nagusi dira—; beraz, **gure jardunak enplegu-galerak minimizatzen eta enpleguei eustera bideratu behar ditugula adierazten digu horrek, baina enplegu-aukera berriak sortzen jarraitzeari uko egin gabe.**

**EAEko egoera sozioekonomikoa Estatuko batez bestekoa baino zertxobait hobea da eta Europako batez bestekoekin parekatzeko moduan dago magnitude nagusietan baina, egun, ziurgabetasun-maila oso handia dela egiaztatu dugu, finantza-esparruko tentsioen eraginez. Doitze-politiken ondorioz, barne-eskaria murrizten ari da eta egoera horri finantza-esparruko tentsioak gehitzen badizkiogu, jarduera**



Confederación Empresarial Vasca  
Euskal Entrepresarien Konfederakuntza

ConfeBask



ekonomikoa eragozten duen egoera izaten jarraituko dugu. Datu makroekonomikoak eta gure ekonomiaren geldialdi-aurreikuspenak kontuan izanik, eta enpresek finantzaketarako kredituak lortzeko zailtasunak dituztela ikusita, 2012an egoera oso konplikatuua izango da. Hori horrela izanik, gure indarrak zeintzuk diren identifikatu ditugu, sendotzeko, eta gure ahuleziak definitu ditugu, gainditzeko; hartara, gure garapen-ereduaren iraunkortasuna bermatu nahi dugu, orain arte lortutako ongizate-mailan atzera egiteko arriskurik ez izatearren

**EAEko egoera sozioekonomikoa 2008tik dator, 2008. urtetik ekonomia aurreratuak pairatzen ari diren krisialdi sakonaren ondorio baita;** krisialdi hori munduko finantza-sisteman izandako gorabeheren eraginez sortu zen eta, lehen esan dugunez, berriz ere gainbehera egiteko arriskuan dago, Eurogunean egindako murrizketa gogorren eta zor subiranoaren egoera kaskarraren eraginez. Horrela, bada, EAEko ekonomia 2012an ere kolokan egongo da.

EAEEn, **industriak garrantzi erlatibo handia du** BEGari (Europako batez bestekoa baino % 10 gehiago) eta enpleguari dagokionez, bereziki, metalurgian, garraio-materialean eta material elektrikoan; **horregatik, oso kaltebera da krisiaren une gogorrenetan** baina, errekupeazioaren bidea hartuta, gure ustez, munduko merkatuetan duen posizionamendu-maila handia baliatzeko aukera emango dio horrek.

Euskal ekonomiak Espainiako esportazio-tasa handienetakoa du, bereziki, aeronautikaren sektorean, automozioan, ontzigintzan, etxetresna elektrikoetan eta makina-erremintan; beraz, **euskal ekonomiaren irekiera-mailari erreparatuta, krisialditik ateratzeko gaitasun handiagoa izango duela pentsa dezakegu,** kanpo-merkatuen errekupeazio-faktoreez baliatzeko aukera duelako. Gaur egun, Euskadik krisiari aurre egiteko faktore garrantzitsuenetako bat kanpo-sektorea da; izan ere, azken bi urteotan, esportazioak % 51 baino gehiago egin du gora.

Baina euskal enpresek atzerrian presentzia izango dute baldin eta eskaintzen dituen produktu eta zerbitzuak kalitatezkoak eta berritzaileak badira. **I+G+Bko inbertsioak gora egin du** (2011. urtean, EAEko BPGaren % 2 baino gehiago bideratu zen soilik I+Gra), eta azpiegitura fisikoak, laguntza teknikoko azpiegiturak eta enpresen lehiakortasunari laguntzekoak ere oso onak izaki, **krisialdiari aurre egiteko indarra eta enpleguari eusteko ahalmena izan badirela egiaztatu dugu.** Izan ere, enplegua suntsitzen ari den arren, **Euskadiko enplegu-mailak Espainiakoak baino handiagoak eta Europako batez bestekoaren antzekoak dira** oraindik ere, eta krisialdia hasi zenetik, enpresa gutxien itxi diren autonomia-erkidegoa da (% 8,1 eta Estatuko batez bestekoa % 12,7 da).

Dena dela, **bada kezkatzeko moduko daturik: landunen bolumenari dagokionez, behera eta behera ari gara etengabe** (% 1,1 aurreko hiruhilekoari dagokionez) **eta langabezia-tasa hazten ari da, gutxi, baina etengabe** (% 0,6 azken hiruhilekoan). Jardueraren eta okupazioaren bilakaera ez da orekatua izan. sexuaren arabera; krisiaren ondorioz, gizonezkoen enplegu-tasa 2,43 puntu jaitsi da

azken urtean eta 6,6 puntu krisialdia hasi zenetik, hau da, 2008ko 4. hiruhilekotik gaur arte. Aldiz, emakumeen okupazio-tasa 1,6 puntu eta 0,6 puntu handitu da, hurrenez hurren, aldi horietan

EAEEn jarduera-tasa txikia da, batik bat, gazteenen eta zaharreneen lan-portaeragatik; tasa txiki hori eta adin-egitura zahartua izatea dira gure ahulezia nagusiak. Kalkuluen arabera, EAEEn erroldatutako 849.100 etxekoen unitateetatik heren batean ez dago pertsona aktibo bat bera ere eta, nahiz eta hamar etxekoen unitateetatik seitan pertsona guztiak aktibo dauden, aurreko hiruhilekoan baino 8.400 gutxiago dira. Gainera, pertsona aktibo guztiak langabezia dituzten etxekoen unitateak 37.700 dira (guztizkoaren % 4,4), aurreko hiruhilekoan baino 1.800 gehiago.

**Langabezia-tasa % 11.2ra iritsi da dagoeneko; horrek esan nahi du 116.900 pertsona daudela langabezia eta zenbateko hori 155.867ra igotzen da erregistratutako langabezia kontuan hartuz gero. Egoera horrek ondorio pertsonalak ez ezik, gizarte-arloko ondorioak ere eragiten ditu.**

Biztanleria aktiboaren prestakuntza-mailari dagokionez, unibertsitateko ikasketak egin dituztenen eta lanbide-heziketako tituludunen ehuneko handia izaki, I+G+Barekin loturiko okupazioetara eta gure enpresen kalifikazio-premietara hobeto egokitu gara.

**Langabeziaren dimentsio sozialari erreparatuta, gure errealitatearen hiru alderdi nabarmenduko ditugu ondorio sozioekonomiko garrantzitsuak dituztelako:**

- **Gazteen egoera:** Enplegu-suntsipenaren mailarik handienak EAEko gazteen artean gertatzen ari dira. BJAren arabera, EAEko **gazteen langabezia-tasa % 24.2 da eta gazte langabeen % 60k derrigorrezko irakaskuntzako ikasketak egin ditu, gehienez.**
- **Langabezia kroniko bihurtzea, luzaroko langabezia:** Nazioarteko eta Europako krisialdia luze jotzen ari denez, **EAEko langabetuen % 45ek urtebetetik gora darama egoera horretan** (betiere BJAren azken datuen arabera). Azken urteotan, langabezia-prestazioak agortuta, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzeko premian dagoen biztanleriaren bolumenak gora egin du baina prestazio hori jasotzen zutenen kopurua ez da murriztu.
- **Zona deprimituagoak izatea;** hainbat eremu egoera latzagoan daude, krisiak eragin handia izan duen jarduerak edo sektoreak biltzen dituztelako edo beste faktore batzuegatik. Horren ondorioz, enplegu-erregulazioko espedienteak onartu behar izan dira eta langile asko geratu dira espedienteen eraginpean, erretiratzeko adinera iristeko gutxi falta dutela eta langabezia aldi luzeak egonik. **Eskualdeei dagokienez, Ezkerraldea, Enkarterria, Ibaizabal, Bilbo, Behe Bidasoa, Debabarrena, Oarsoaldea, Aiaraldea eta Vitoria-Gasteiz** daude egoera horretan, eta lurraldearen eta gizartearen kohesioa arriskuan jartzen dute.



Confederación Empresarial Vasca  
Euskal Entrepresarien Konfederakuntza

ConfeBask



Gure produkzio-sarearen portaera eta, batez ere, lan-merkatuaren portaera ikusita, epe laburrean ezarri beharreko jardun berriak ezinbestekoak dira, krisiaren ondorioak arintzeko eta errekupezioa bizkortzeko, eta epe ertainean eta luzean, zabalkuntza-ziklo berria sendotzeko eta horren amaieran antzeko egoerak saihesteko. Azken batean, azken krisialdiaren ezaugarriak, lan-merkatuaren gaineko ondorioak, edota produkzio-sektoreetan atzematen diren aldaketak kontuan izanik, **erantzun berriak eskatzen dituen inflexio-puntu bat** gertatu dela esan daiteke, **bai arlo ekonomikoan, bai lanaren esparruan.**

Eusko Jaurlaritzak **hori guztia kontuan izan du Enpleguaren Euskal Estrategia** osatzeko garaian; estrategia hori produkzio-indarguneen aprobetxamendu handienarekin lotu behar da, batez ere, berrikuntzarako, bezeroen arretaren arloko, produktu eta zerbitzuen kalitatearen hobekuntzarako eta esportaziorako ahalmenari dagokionez. Epe laburrean, nazioartekotzea eta, epe ertain eta luzean, berrikuntza, hazkunde eta lehiakortasuneko faktore erabakigarri bihurtu dira horrela, eta, beraz, baita Estrategiaren aplikazioaldian enplegua sortzeko potentzialari dagokionez ere.

Aukera horien alderdi osagarria da, alde batetik, pertsonen kalifikazioa, enplegarritasuna eta moldagarritasuna hobetzeko premia, produkzio-testuinguruari behar bezala erantzuteko; eta, beste aldetik, kolektibo kalteberenen alde orientatzen diren aukera-berdintasuneko politikak lehenesteko premia, gizarte-talde jakin batzuentzat irisgarritasun eskasa duen lan-merkatu dual bat sortzea saihestuz.

Gazteen kasua bereziki aipatu nahi dugu, horien laneratzeak krisialdiarekin bat egin duelako, eta eragile sozioekonomikoen, erakunde-arlokoen eta enpresa-arlokoen baterako jardun irmoa eskatzen du, galera konponezin bat saihesteko.

Eusko Jaurlaritzaren eta Akordio hau sinatu duten enpresaburuen elkarte eta sindikatuen ustez, hazkunde ekonomikoari ezin zaio eutsi ez bada kalitatezko enplegu egonkorrik sortzen eta, egungo krisi-egoera dela-eta, oso garrantzitsua da kolektibo kalteberenen egiturazko langabezia ez finkatzea eta diru-sarreraren bilakaera orekatuagoa ahalbidetzea, hazkunde iraunkorragoa izan dadin.

**Baina hori guztia lortzeko erakunde publikoen eta agente sozial eta ekonomikoen arteko berehalako lankidetzak behar-beharrezkoa da, politikaren, gizartearen eta enpresaren arloko ekintzan helburu komunak betetzeko;** izan ere, horrek eragin oso positiboa izango baitu euskal gizartearen garapen orekatuan eta ongizatean, eta gure herritarrek horixe baino ez baitute espero eta merezi, Euskadiko agente sozial eta sektore guztiek esfortzu solidario eta koordinatua egitea, hain zuzen. Esfortzu hori agente sozialekin hitzarmenak eginez gauzatu behar da.

**2011-2014 aldiko Enpleguaren Euskal Estrategia (berriki onartu den estrategia) erantzukizun-jarrera horren esparruan txertatu behar da eta ildo beretik jardungo dugu, Euskal Enplegu Zerbitzu Publiko berezi batean oinarrituta, bat-batekotasuna alde batera utzita eta seriotasunez eta koherentziaz jokatuz, adostasunez eta egiturazko moduan eraikitzen ari garena indartuta; Zerbitzuaren**



Confederación Empresarial Vasca  
Euskal Entrepresarien Konfederakuntza

ConfeBask



ikuspegi berria eman behar dugu, pertsonekin, enprekin eta lurralde-orekarekin konprometituta dagoen Zerbitzua izanik, betiere enpleguari dagokionez.

Gure ustez ere, egun bizi dugun egoeran, Eusko Jaurlaritzaren 2010-2013 aldirako Enpresa Lehiakortasuneko Planean bildutako ildoak ez ditugu alde batera utzi behar, krisiaren aurrean ezinbestekoa baita enpresei laguntzeko eta trakzio-enpresak indartzeko estrategiak bultzatzea; horretarako, gure ekonomiaren irekiera, berrikuntza eta maila teknologikoa indartu behar dira, lehiakortasunerako eta ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren iraunkortasunerako gako-faktore diren aldetik.

Oinarri horretan oinarrituta, eta zuzenean enplegu-politikei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak eta agente sozialek zera lortu nahi dugu:

- **Lanbide eraginkor, adostu eta konprometitua osatzen jarraitzea.**
- **Enplegua sustatzeko neurri zehatzak abiaraztea, 2012an gauzatzeko.**

## **LANBIDEREN OINARRIAK SENDOTZEA**

2012an langabezia-egoera latza datorkigu eta horri aurre egiteko garaian ez diogu bat-batekotasunari tokirik utziko; politika aktiboak kudeatuko dituen erakundearen, hau da, **Lanbideren**, oinarriak adostasunez finkatu eta sakonduko ditugu.

**Lanbide sendotuko dugu, Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa den aldetik**, gizarte-elkarrizketari eta erakundeen lankidetzari begira, bereziki, tokiko eremuan, eta euskal enpresa-sarearekin harreman zuzena eta estua izanik. Lan-merkatu jakin bat lortzea da gure xedea, enpresen lehiakortasuna, pertsonen enplegarritasuna eta kalitatezko enplegu egonkorra ahalbidetuko dituen eta enplegu-aukerak zabalduko dituen lan-merkatua, hain zuzen. Helburu horrekin, Euskal Enplegu Zerbitzua indartzeko asmoa dugu, enpresei erreparatuta eta zerbitzuak pertsonalizatuta, baita **ikerketa eta berrikuntza** sustatuta ere, enpleguaren eta prestakuntzaren eremuetan eta enplegua kudeatzeko eredu berrietan.

2012. urtean, **LANBIDE Planaren alderdi garrantzitsuena izango da eta, horren ildotik:**

- Lanbideren zerbitzu-katalogoa erabat zabaltzeari ekingo zaio.
- Eta herritar guztiek zerbitzuan sartzeko eta erabiltzeko aukera izatea ahalbidetuko da.

**Pertsonak, enpresak eta lurralde-oreka** izango dira esfortzu adostu eta konprometituaren ardatzak, Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan oinarrituta eta enpleguan eragiten duten Eusko Jaurlaritzaren Sail guztiak jakinaren gainean eta ekiteko prest daudela, **jardun-ildo hauei dagokienez:**

- ❖ **PERTSONAK.** Arreta indibidualizatua eta pertsonala zabalduko dugu orientazioko, prestakuntzako eta bitartekotzako zerbitzuen bitartez, herritarrek beren enplegarritasuna hobetzeko eskubidea garatzeko tresna erabakigarriak diren aldetik, produkzio-sistemaren premiekin loturik eta kolektibo kalteberenei bereziki erreparatuta, hala nola, gazteei, emakumeei, etorkinei, desgaituei eta luzaroko langabetuei, betiere desegituratze- eta bazterkeria-egoerei aurrea hartzeko; hartara, gizarte-kohesioa areagotuko da.
- ❖ **ENPRESAK.** Enpresen eta langileen premiei (giza kapitalaren, enpleguaren eta prestakuntzaren alorreko premiei) **erantzuteko zerbitzua garatuko dugu.** Enpresa-ekimen berriak sortzera bultzatuko dugu eta autoenplegua indartuko dugu.
- ❖ **LURRALDE KOHESIOA.** Lurralde-kohesioa sustatuko dugu, enplegu-politikaren tokiko dimentsioa indartuta, tokiko agenteekin helburuak partekatzeko, konpromisoak zehazteko eta jardun-irizpideak definitzeko aukera ematen duten akordioen bitartez.

**Baina orain arte egin duguna hobetzea ez da aski.** Nazioartean eta Europan 2012rako egoera ekonomiko oso konplikatu aurreikusten da; beraz, Euskadin enpleguari eusteko esfortzuak eta langabeziaren aurkako ekimenak bultzatu behar dira, **enpresen eta enpleguaren eremuan Jaurlaritzaren ekintzari, oro har, koherentzia emanda Eta horretarako, 2012an berehala garatuko ditugun neurri zehatz, espezifiko eta erantsiak ezinbestekoak dira;** hona hemen neurri horiek:

## **2012rako ENPLEGUA SUSTATZEKO NEURRIAK**

### ❖ **PERTSONAK**

Jaurlaritzak eta agente sozialek batera jardunda, lan-arloko orientazioa eta informazioa, Hasierako Lanbide Heziketa eta Enplegurako Lanbide Heziketa, eta irakaskuntza ez-formalen eta lan-esperientziaren bitartez eskuratutako gaitasunak onesteko baliabidea uztartuko dituen sistema bakarra bultzatzen jarraituko dugu. Hori guztia enpresekin lotura handia izanik.

Horretarako, 2012an honako arlo hauek garatuko dira:



Confederación Empresarial Vasca  
Euskal Entrepresarien Konfederakuntza

ConfeBask



**1.1. Orientazioa, informazioa, laguntza, motibazioa eta aholkularitza pertsonalizatua emateko zerbitzua orokorra izango da, bereziki eta lehentasunez langabeei zuzenduta, beren prestakuntzako, enplegua bilatzeko, enplegua hobetzeko edo enpresa-ekimenak praktikan jartzeko ibilbide indibiduala kudeatzearen.**

Informazio eta Orientazio Profesionaleko Sistema Integratua garatuko da; bizitza aktibo osoan laguntza emateko izango da.

Lanbide-heziketako zentroetatik eta unibertsitateetatik ikasle gazteei arreta emango zaie, lehenago.

**1.2. Lanbide-heziketa.**

2011-2013 Lanbide Heziketako Euskal Planaren esparruan, prestakuntza-ekintzak sendotzen jarraituko dugu, betiere lanbideak modu kalifikatuan garatzeko, enplegua lortzeko eta gizartearen, kulturaren nahiz ekonomiaren bizitzan modu aktiboan parte hartzeko gaitzen duten ekintzak badira; hezkuntza-sistematik, tituluak lortzea izango da xede, eta lan-sistematik, aldiz, profesionaltasun-ziurtagiriak lortzea.

Horrela, bada, gure esfortzua honako hauetara bideratuko dugu: **Hasierako Lanbide Heziketari** dagokionez, zentro publikoetan eta itunpeko zentro pribatuetan; DBHko graduatu-titulurik ez duten 16-20 urte bitarteko gazteei zuzendutako Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programei dagokienez, DBHko graduatu-titulua edo 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko; erdi- eta goi-mailako prestakuntza-zikloetako 2. mailan dauden ikasleei zuzendutako **Prestakuntza Lantokietan**, lan-mundua hobetu ezagutu dezaten eta haien enplegarritasuna hobetzeko; LHko eta unibertsitateko titulua lortu dutenei zuzendutako **Leonardo eta Erasmus Mugikortasun Programak**, atzerriko hezkuntza-zentro eta enpresetarako mugikortasuna sustatzeko, lanbide-gaitasunak hobetzerren, enplegarritasuna ahalbidetzerren eta, azken batean, beste kultura-ingurune batean prestakuntza osatzerren; **Lanerako prestakuntza langabeentzat eta landunentzat**, enpleguari eusteko, eta gure giza baliabideen kalifikazio-maila eta gure enpresen lehiakortasuna areagotzeko.

2012rako neurri berritzaileen artean, honako hauek bultzatuko dira bereziki:

**1.2.1. Lanbide-heziketako eskaintza partziala.** Lanbide-heziketako ikastaro oso bat egiteko zailtasunak dituztenentz, ikastaroa modulutan banatuko delako.

**1.2.2. Lanbide Heziketa on-line.** Lanagatik edo dena delakoagatik, lanbide-heziketako zentro batera joateko zailtasunak dituztenentzat; prestakuntza-zikloak moduluka eskainiko dira, ingurune birtual batean.



**1.2.3. Enpleguarekin batera egiten den prestakuntza, prestakuntza hasten ari diren edo kalifikazio-maila txikia duten gazteei zuzenduta.** Prestakuntza hori Prestakuntza eta Ikaskuntza Kontratu berriarekin loturik dago. Enplegurako Lanbide Heziketako Sistemaren edo hezkuntza-sistemaren esparruan emango da prestakuntza hori; beraz, profesionaltasun-ziurtagiri bat, lanbide-heziketako titulu bat edo egiaztatze partzial metagarri bat lortuko da, baita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua ere, titulu hori izan ezean. Bi programa-ildo garatuko dira:

- Hasierako lanbide-heziketan esperientzia pilotua, enprekin ikaskuntzako eredu bat esperimentatzeko; EAEn berezko prestakuntza partekatuko eredu bat lortzera bideratuta. Etorkizuneko aukerak dituzten sektoreekin loturiko kalifikazioetan egingo da esperientzia pilotua.
- Kalifikaziorik ez duten gazte langabeak berreskuratzea, tituluekin edo profesionaltasun-ziurtagiriekin loturiko lanbide-heziketako prozesuen bitartez eta enpresetan ere jardunda, txandaka.

**1.2.4. Langabezia dauden gazteek hizkuntzak ikasteko laguntzak emango dira,** lan-merkatuan aukera gehien eskaintzen dituzten hizkuntzetan hizkuntza-gaitasunak eskura ditzaten eta gure enpresen nazioartekotze-prozesuetan lagun dezaten.

**1.2.5. Prestakuntzako programak, praktikak eta lan-esperientziak egingo dira enplegu-nitxo berrietan, indartzen ari diren sektoreetan.**

- Goi-mailako kalifikazioa duten gazteen kasuan, **jarduera iraunkorretan** espezializatzeko (enpresentzako ingurumen-zerbitzuekin, energia berriztagarriekin, ingurumen-heziketarekin, turismo iraunkorarekin, garraio eta mugikortasun iraunkorarekin, eraikinen ekoeraginkortasunarekin, produktu eta zerbitzuen ekodiseinuarekin eta abarrekin loturik), prestakuntza eta enpresetako praktikak uztartzen dituzten prozesu mistoen bitartez eta norbere konturako enplegurako aholkularitza eta laguntza barnean hartuta.
- Kalifikazio-maila txikia duten luzaroko langabeen kasuan, **birgaitze eta eraikuntza iraunkorrean**; ikaskuntzarako laguntza ez ezik, kontratazioa ere sartzan da, betiere eraikuntza iraunkorreko eredu baten arabera jarduten duten eraikuntza-enpresek egiten badute kontratua.

**1.2.6. Prestakuntza eta praktikak uztartzen dituen plan bat diseinatuko da; praktikak euskal enpresetan edo atzerrian izan daitezke eta Lanbide Heziketako eta unibertsitateko titulua duten gazteei zuzenduko zaie.**

**1.2.7. Ikerketa eta berrikuntza bultzatuko da erreferentzia nazionalako zentrozen bitartez, lan-esparru jakin batean kalifikatutako erreferente bihurtzarren.** Erreferentzia Nazionalako Zentrotzat hartzeko hautagaitzak babestuko dira: Makina Erremintaren Institutua, fabrikazio mekanikoaren kasuan; Lasarteko zentroa, lurreko garraioaren kasuan, eta Sestaokoa, aldiz, industria-alorreko instalazio eta mantentzearen kasuan. 2012an ebatziko direla aurreikusten da.

**1.3. Lan-esperientzia bidez eta prestakuntza-bide ez-formalen bitartez lortutako lanbide-gaitasunak onesteko, ebaluatzeko, egiaztatzeko eta erregistratzeko balia bidea garatu eta sendotuko da, agente sozialen lankidetzak aktiboarekin.**

#### ❖ ENPRESAK

**Lanbide produkzio-sareari begira jarriko dugu,** bai enpresei zerbitzuak eskaintzeko, bai enplegu-zerbitzuak elikatzeko. Politika aktiboen eta politika horiek kudeatzen dituzten erakundeen eraginkortasuna handitu egingo da produkzio-sarearen ezaugarriak hobeto ezagutzen diren heinean. Printzipio horren arabera jardun beharko du Lanbidek. Horregatik, 2012. urtean:

**1.4. Enpresa-sarearen egungo eta etorkizuneko problematika, joera eta premien jarraipena egiteko sistematikak** garatuko dira, Lanbideren jarduna norabide egokian bideratzeko orientazioko, prestakuntzako eta bitartekotzako oinarrizko zereginetan.

**1.5. Aplikazio informatiko bat garatuko da, produkzio-sarean bildutako informazioa Lanbideren departamentu eta jarduera guztietara bideratu ahal izateko.**

**1.6. Lanbidek enpresentzat eskaini beharreko zerbitzu espezifikak diseinatuko dira eta, horiek garatzeko garaian, lankidetzak-hitzarmenak egin ahal izango dira.**

**1.7. Ekintzailertza sustatuko da, lehiakortasuneko gako-faktore den aldetik.** Enpleguari eusteko eta, bereziki, enplegua sortzeko enpresa-sarea biderkatu egin behar da; beraz, ekintzailertza sustatzea biziki garrantzitsua da.

Ildo beretik, 2012. urtean **Ekintzailertzaren Euskal Zerbitzua** sortzea bultzatuko da eta **negozio berri bat** sortzeko prozesuan balio-kate osoari laguntzeko neurriak sustatuko dira: **Kultura ekintzailea bultzatzeko neurriak** gizartean eta hezkuntza-ingurunean, prestakuntzaren bitartez, jakintzari dagokionez jarduera intentsiboa duten arloetan, enpresetan, plataforma teknologikoetan eta unibertsitateetan; **ideia eta enpresa-proiektua zehazteko prozesuan aholkularitza, ekintzaileari laguntza emanaz, eta enpresa eratzeari dagokionez:** sarbiderako leihatila bateratuta, administrazio-izapideak erraztuta eta negozioa inkubatzeko balia bideak eta laguntza

eskainita (oinarri teknologikoa duten enpresa-proiektuak edo industria-arloko berritzaileak lehenetsiko dira, EAEko EBZen eta bestelako ekintzaitza-zentroen bitartez); **enpresen barruan barne-ekintzaitzako metodologiak ezartzeko laguntza; enpresetan belaunaldi-txanda gertatzeko laguntza**, plangintza baten barruan eta modu ordenatuan egin dezaten, finantza-baliabideak eskura izanik eta balio-suntsiketari arriskuak saihestuta.

### **1.8. Autoenplegua eta indartzen ari diren sektoreetan enpresa berriak sortzea sustatuko dira.**

Eta honako neurri hauekin jardunean jarraituko dugu:

### **1.9. Enplegua sustatzeko neurriak bultzatuko dira kontratazeko laguntzak emanez:**

- 1.9.1. Lana eta familia bateragarri egiteagatik lanaldi-murrizketa edo eszedentzia hartu dutenek hutsik utzitako postuak betetzeko enpresek langabeak kontratazeko.
- 1.9.2. Gizarteratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak edo gainbehera doazen zona edo sektoreetan kontratazeko.

### **1.10. Gizarte-segurantzako kotizazio-gastuak ordaintzeko laguntzak sustatuko dira, langabezia kapitalizatze programaren ondorioz sortutako enpresa-ekimen berrietarako.**

## **❖ LURRALDE KOHESIOA.**

Lurralde-kohesioa lortzea oso garrantzitsua da gizartearen aurrerabidean eta, horretarako, tokiko mailatik esku hartzea tresnarik egokiena izaten da. **Tokiko dimentsioa indartuko dugu** Lanbidetik, honako hauen bitartez:

### **1.11. Eskualdeko enplegu-planak sustatzea** EAEko 30 eskualdeetan, **betiere sustapen ekonomikoa, enplegua sortzea eta langabeziari aurre egitea oinarritzat hartzen dituen lurralde-arloko plangintza estrategiko batetik baldin badatoz**, erakunde publiko eta pribatuekiko lankidetzaren eredu finkatuta eta agente sozialen laguntzarekin. Hori guztia lortzeko:

- 1.11.1. **Plan horiek egiteko laguntzak emango dira.**
- 1.11.2. **Enplegarritasuna hobetzeko proiektuak bereziki finantzatuko dira**, Lanbideren baliabide orokorretatik egin ezin bada.
- 1.11.3. Zona deprimituagoetara (langabezia-tasa handiak dituzten eskualde eta udalerriak) **baliabide gehiago bideratuko dira**, ekonomia indartu eta aktibatzearen eta langabeak laneratzearren.



Confederación Empresarial Vasca  
Euskal Entrepresarien Konfederakuntza

ConfeBask



Ekintza horietarako guztietarako **321.466.814** euro bideratuko dira. Zenbateko horretan sartuta daude honako hauek: Hezkuntza Saitetik eta Industria Saitetik sortutako ekintzetarako sail horiek egindako ekarpenak (80.152.475 euro eta 32.000.000 euro, hurrenez hurren).

Enpleguarekin zuzenean loturik, langabeziari aurre egiteko plan honetan Lanbideren aurrekontuetan esleitutako **179.314.339** euro bideratuko dira, gehi **30.000.000** euroko ezohiko funts bat, enpleguaren aldeko konpromisoarenak.

Jaurlaritzak Lanbideren aurrekontua errespetatzeko konpromisoa hartzen du, baita enpleguaren aldeko konpromisoko ezohiko funtsarena ere; planaren egikaritzealdian ezin izango dute murrizketarik jasan.

Eusko Jaurlaritzaren Saitetako administrazio-organo eskudunei dagozkien jardun eta neurrien jarraipena alde batera utzi gabe, Eusko Jaurlaritzak akordio honen betetze-mailaren jarraipen orokorra egiteko beharrezkoa den informazio guztia emango dio Gizarte Elkarrizketarako Mahaiari; horretarako, jarraipen-batzorde bat sortuko da, ad hoc.

Akordio hau sinatzeak ez du esan nahi Eusko Jaurlaritza eta enpresaburuen elkarte nahiz sindikatuak egiten ari diren elkarrizketa-prozesuaren edukiak agortu egiten direnik; aitzitik, bi alderdiek prozesua garatzen jarraitzeko konpromisoa hartu dute.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko otsailaren 22a.

Izpta.: Gemma Zabaleta Areta  
**Enplegu eta Gizarte Gaietako  
Sailburua**

Izpta.: Nuria López de Guereñu Ansola  
**Confebask-eko idazkari nagusia**

Izpta.: Unai Sordo Calvo  
**CCOOeko idazkari nagusia**

Izpta.: Dámaso Casado Cuevas  
**UGTko idazkari nagusia**

Patxi López Álvarez  
**Lehendakaria**